

PRODUKTUAREN DESKRIBAPENA

Aterkiari eransten zaion mugikor euskarria sortu dugu. Ideia paregabea, hain zuzen ere.

Gure taldeak {Dua Pulluh Lima} izena du, Iñaki Tejedor, Uxue Kerejeta, Ander Aranburu eta Ainara Idiakez-ek osatzen dutena. Gure egitasmoa gazteentzat da batez ere, baina baita helduentzat ere ezinbestekoa den produktu bat sortzea izan da: aterkiari itsas diezaiokegun mugikorrarentzat euskarria, hain zuzen ere. Honek abantaila asko izan ditzakela uste dugu, eta oso eroso dela iruiditzen zaigu.

Guztioi gertatu izan zaigu, euria egiten duenean ezin izan dugula mugikorrarekin ibili aterkiarekin estaltzen ari garen bitartean. Hori, ez da batere eroso eta normalean busti egiten gara, bai gu eta bai mugikorra. Gazteentzat, eta gehien bat mugikorra asko erabiltzen dutenentzat, izugarritzko arazoa dela uste dugu, guri maiz gertatzen baitzaigu. Beraz, soluzio bat bilatu nahian, produktu hau sortzearen ideia bururatu zitzaigun.

Euskarri txiki bat da, mugikorra bi aldetatik helduko duena, mobilaren eta euskarriaren beheko aldean edozein tamainatako aterkiari erantsi daitekeen euskarri bat izango du, tamainaz aldatzen dena eta aterkia sendo elduko duena, edo aterkiak euskarria. Honek kalean ibiltzen goazen bitartean mugikorrarekin eta aldi berean aterkiarekin estaltzen egoteko aukera emango digu. Aterkia helduz mugikorra helduta dugu, eta alderantziz, mugikorra helduz aterkia tente edukitzeko aukera dugu.

Produktu honekin, lasai asko ibili ahal izango gara euria egiten duenean, gure lagunekin edo etxekoekin WhatsAppean hitz egiten, telefonoz eroso mintzatzen, edo beste edozertan. Ez da objektu handia izango eta ez du estorburik egingo, oso eroso izango da. Poltsoan eramateko aproposa izango da, ez duelako leku asko okupatzen. Kolore desberdinen diseinua egingo dugu, hain zuzen ere hiru koloretakoa.



Argazkietan ikus dezakegun bezala, gure produktua muntai sinpleetan osatu nahi dugu pieza desberdinak erosis eta beraien artean elkartuz. Uste dugu produktu oso simplea eta erabilgarria dela gaur egungo guztientzako mobila oso erabilgarria delako.